

Kutxiguzue bidea

Miren Azkarate
Badiola

Zine kritikaria izateko jakin egin behar da, berdin antzerki eta musikaletarako, eta ni ez naiz aditua, baina zalea bai. Txiki-txikitatik sartu zidaten harra izebak eta osabak, biak espektakuluaren munduko langileak izaki. Lehenak, Klarak, euskararekiko maitasuna ere bai, bere lana Euskal Herrira mugatuz eta ahal zen guztietan euskaraz garatu baitzuen; eta bigarrenak, Patxik, bizitzako esparru eta momentu guztietan umorea erabiltzen erakutsi zidalako.

Azken horrek zuzendari bezala estreinatutako ikuskizun batera joateko aukera izan nuen aurreko batean, eta esango dizue: «Badakigu orduan kritika ona

egingo duela». Ba bai egingo dut, baina pisuzko arrazoiekin, ikusiko duzuen bezala.

Batetik, bizi dugun garai hauetan ikuskizun bat estreinatzeak duen meritua eta ausardia azpimarratu nahiko nituzke: pandemiaren aitzakiapean denak balio duenez badakigulako kultura zein egoeratan dagoen. Bestetik, oholtza gainean dauden aktore eta abeslariak paregabeak direlako. Eta azkenik, obrak berak, oso ezaguna izan arren, ez duelako aspertzen, horretarako berritasun on batzuk sartuta.

“Kutxidazu bidea Ixabel” ikustera joan nintzen Victoria Eugenia antzoki dotore-ra eta hasiera batean pixka bat beldur

banintzen ere, jada formatu guztietan ikusi baitut obra hori (liburu, antzerki eta pelikula), izugarri gozatu nuen! Ordu eta erdia berehala pasatu zitzaidan, berrere asko egin nuen eta zergatik ez onartu, negar pixka bat ere bai. Arestian esan bezala, ez naiz kritikaria, baina niretzako zerbait ona dela esateko baldintza ezinbestekoa da zerbait sentiarazten didan ikuskizuna izatea; mina, algara edo dena delakoa, eta honek hori lortu zuen.

Luzaroan segi dezazuela Demode Quartet jendea hunkitzen eta bidea erakusten, euskaraz eta umoretik, umorez eta euskaratik. Abestuz gainera! Eta ongi dakigun moduan: abesten duen herria ez da inoiz hilko! •

Klik

Antton Izagirre

Naziometroak eman berri digu lehen neurketaren berri eta erakutsi digu gehiengo zabal bat dagoela hemengo erabakia bertan hartzearen alde. Eta tartean batezbesteko esanguratsu batek burujabetzaren aldeko hautua egingo omen luke aukera izanez gero. Hori ere agertu du. Hau da, burujabetza lortzea klik batez hautetsontzian papertxoa sartzea bezain erraza balitz, gutariko askok hautu hori egingo luke.

Baina erabakitzeo eskubideak, papertxo edo klik hori edukiz betetzeak, borondate hutsetik harago joatea eskatuko baligu, zalantzak ditut erabakitzeo eskubidearen ondorioaz.

Esate baterako, inoiz baino gehiago zer jan erabakitzen ari gara egun hauetan; pentsatu al dugu une batez zenbaterainoko hautua egin dugun herri baten burujabetzaren oinarri den elikagaien subiranotasunaren alde? Galdetu al dugu jan behar dugun hori non eta nola sortua izan den? Galgarik jartzen al diogu erosteko dugun eskubide horri?

Ez da nire asmoa norberaren askatasunari mugak jartzea baina ohartu gaitezen gure eguneroko jardun askok harreman handia dutela aurrez baietza eman diogun herri burujabea izateko eskubide berarekin. Horrekin zera esan nahi dut, gure burujabetzaren kanpoko

aitortzaren zain egon gabe burujabetza ekinaren ekinez lortzen joan behar dugun erronka dela. Eta hori adibide bat besterik ez da. Izan ere, «jaten duguna gara» ez litzake koherentea burujabetzaren alde egon eta merkataritzaren erabateko liberalizazioari men egitearekin.

Hori bezala, gure identitate zeinu modura «euskaldunak gara» harrotasunez aitortzen dugunean baina hiltun praktika kamutsa mantentzen dugunean.

Gure kontraesan eta aldagaien zerrenda luzea izan liteke baina urtea has-teko asmo berrien zerrendan bi erabakimen horien aldeko aldarteari “klik” egingo bagenio asko egingo genuke burujabetzaren alde. Urte berri on! •